

Zientziaren igaliak



Jakintzaren arbola

Jatorrizko izenburua: El árbol de la ciencia

Egilea: Pio Baroja

Itzultzailea: Josu Zabaleta

Argitaratze urtea: 2006

Argitaletxea: Alberdania&Elkar

KARLOS DEL OLMO

Laster ehun urte beteko ditu *Jakintzaren Arbola* nobelak. Mende oso bat behar izan dute euskal erakundeek orain arte tanta-tantaka euskaraturiko Barojaren lanen baranora, bateratsu, bi lan ekartzeko, nora eta literatura unibertsaleko obra dirdiratsuenetako batzuk elkartzen dituen larrainera. Nonbait, idazlearen heriotzaren urteurrenak bat-batean lozorrotik (eta ikara batean) iratzarri zituen arduradun politiko batzuk. Eta tarrateko batean antolatzen ekin zioten zuten gaztelaniaz idatzitako idazle baskoen ikurretako bati omen egiteko modua: Literatura Unibertsala baratzeko arbolaren arrimu epelera erakarri zituzten Pioren bi lan. Atsotitzak emaniko "pentsatu prisarik gabe, ekin geratu gabe" aholkuaren albisterik ez baten batek. Eskerrak beste erran zahar bat bete, behintzat, guztiz bete ez dena, alegia, "laster lan, alfer lan". Edo, eskatologikoago esanda, "laster lan, kaka lan" ez dela gertatu, tartean EIZIE elkarteak jarritako borondateari esker. Zorionez, iradua goiti-behiti, ezin emaitza txarrik etorri itzulpenaren ardura Josu Zabaletaren esku jarrita, Kultura Saileko arduradunek egin legez.

Jakintzaren Arbolak beti inguratu du arrakasta handia, XIX. mende hondarreko espainiar gizartea ondoen erakusten zuen eleberrietako baten gisa. Egun ere, erraz lekualda liteke eta ehun urte geroagoko espainiar eta euskal gizartera erakarrita, aztertu ea bestela irakurriaz eduki batzuek, aldeaz, artean ere indarrean dirautenetz.

Eleberriko protagonista —bere xumean— heroikoaren bitartez, Barojak espainiar gizartearen hainbat geruza zeharkatu zituen mende amaierako erretratua egiteko. Garai hartako (gaurko?) gizartearen etsipen morala, ezinegona, buru nahasmendua argiro jarri zituen idazleak irakurlearen aurrez aurre.

Ustel usaina omen zerion orduko gizarteari eta, aldeaz edo moldez, kirats harekek behartu zuen gaixotzat jotzen zuen gizaldraren berri nobelatua ematera. Heroia, medikua, zientzialaria, gizarte arrazionalaren ikur, ezin hartaratuta ibiltzen da minbizi hiltzaile batek

jotako gizarte batean. Familia, maitasuna, bizitza politikoa, den-dena endekatze prozesu batean murgilduta agertzen da. Familia, gerra eremua. Maitasuna, gazi-gozoa. Politika, klan edo tribu sail bat. Irakaskuntzan, lanean, gizatasuna urri bai urri. Giza aberea pizti izan hurrean. Prentsa, errealitatea jabeen nahierara desitxuratzen. Eta protagonista (idazlea bera?), hodei guztien azpitik eta "borroka guztien gainetik". Inperio izatetik, harrotasunetik, armen indarretik nolabaiteko porrotaren egunerokotasun aspergarriaren behazuna tantaka edatera joan beharrean izango da bat baino gehiago. Dena dela harako inperio hura, dena dela eskuan arma dagoela abiarazitako borroka.

Ezin ukatuzkoa da liburuaren arrakastaren zioetako bat irakurle asko protagonistarekin identifikatzean datzala. Ikusgarri gertatzen da, bestalde, protagonistaren itzal babeslea Iturrioz deiturako mediku euskaldun bat izatea. Kant eta Schopenhauer irakurgai ematen zizkionak, gainera.

Paperari pesimismoa, zinismoa, zorigaiztoa darizkio, indartsu, joandako urteak goiti-behiti. Protagonistak aitzindari puntu bat zuela diosku Barojak, baina ez omen zuela bizitzeko indarrik. Eta ba ote bekatu astunagorik (gizarte) gazte batengan? Atsegin Baratzeko arbolako sagarra jandako guztiak mundura egotzi gaituzte. Eta mundua arranoa da.

Josu Zabaletak eman digun fruitua ederra denik ezin ukatu. Erraz eta goxo irakurtzen da, eta aise irudika daiteke idazlea euskaraz mintzo zaigula zuzen eta artez. Baina Itzeakoaren obrak beste patxada bat eskatzen zuen, eta testuak, beharbada, beste orraztutxoren bat, larritasunaren koskak leuntzeko, batez ere kontuan izanda, seguru asko, XXI. mendean bestelako argitalpenik nekez edukiko duela. Azken batean, gero da bihar.